



“GUERNICA GERNIKARA”

204. zenbakia - 2019.eko maiatz

EBAKI IRAGARKI HAU, ETA GEURERA EKARRITA,
%10 EKO
DESKONTUA,
 300 eurotik gorako erosketetan!

Julian Gorospe
Alkimaxeko komertziala

ALKIMAX

Jonsered
WACKER NEUSON
KÄRCHER
ALNOVA
TORO

BEHARRIZ: Euzko Industriategia, 71C. Tel: 946 824 550
 GERNIKA Euzko Berruz. 201. Tel: 946 271 7311
 alkimax@alkimax.net



Volkswagen Golf.

Golf Ready2Go 1.0 TSI 85 kW (115 CV).
CO2 isurpena (g/km): 130 (NEDC: 111).
Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 5,8.



Volkswagen

T.M. Gernika (Gerniyas)

Kurtzero Auzoa, 77 - Tel. 946 250 962 - 48392 Muxika

Garaje Yas (Gerniyas)

C. Iritxusi, 1 - Tel. 945 890 334 - 01470 Amurrio



● “GUERNICA GERNIKARA(I)”



“Guernica Gernikara” proiektuaren ordezkariekin mahai-ingurua (I): Programa adostu eta bateratua sortzen

Apirilaren hasieran, Gernika-Lumoko memoria, kultura eta giza eskubideen alorretan lanean diharduten hainbat eragilek proiektu komun bat aurkeztu zuten: ‘Guernica Gernikara’ egitasmoa. Proiektuko parte diren hainbat kiderekin mahai-ingurua antolatu dugu. Hona hemen partaideak: Gernika-Lumoko Batzordeko Jon Argitxona, Sabin Ibazeta eta Aitor Iruzkietia; SAREko Aitor Amutio eta Ibon Meñika (IPESeko ordezkaria ere bada); Lobak taldeko Itxaso Amunategi, Maitane Azurmendi eta Maitane Uriarte; eta Gernika Garretan Kultur Elkarteko zein Arrano Kultur Elkarteko kide den Camino Saiz.

Guernica Gernikara’
plataforma sortu berri duzue.
Nola eta zergatik erabaki
duzue herriko eragileak batu eta
proiektua martxan jartzea?

A.A. Hastapenak zeintzuk diren zehaztea oso garrantzitsua da. Bonbardaketaren 80. urteurrena zela eta, aurreikuspen antzeko bat egin genuen 2017an, izan ere, data borobil bat zela jakinda, urteurren arruntetan baino ekimen gehiago egingo zirela bagenekien. Hala, bonbardaketaren inguruan lan egiten dugun taldeok batzea erabaki genuen, gure artean elkar ez zapaltzeko eta antolatu beharreko ekimenak koordinatzeko. Urtebetez lanean egon ostean, konturatu ginen guztion artean sortzen ari zen sinergiak eta indarrak oraindik ere gehiagorako eman zezakeela. Ikusi genuen eragileen arteko elkarlanak mezuaren indarra biderkatu egiten zuela. Bakoitzak antolatutako ekimenez gain, ekimen bateratuak ere hasi ginen aurrera eramaten.

J.A. Talde askoren lana dago proiektu honen atzean: Gernika-Lumoko Batzordea, Lobak, SARE, IPES, Arrano Kultur Elkarte eta Gernika Garretan Kultur Elkarte. Gure artean hitz egiteko eta elkarlana

koordinatzeko hasi ginen batzen, Gernikaren izaera historikoa eta sinbolikoaren lanketa egiteko, testuinguru bat sortzeko. Hala, gure proiektuaren adar eta ikurra ‘Guernica Gernikara’ aldarrikapena izatea erabaki genuen. Orain dela urte dezente sortu zen ekimenaren ideia berrartu nahi izan dugu, berregokitu, berreztabaidatu eta

berpiztu. Badakigu oso zaila dela Pablo Picassoren koadroa herrira ekartzea, baina Guernicari buruz hainbat diskurtso daude, Gernika herriari buruz ere hainbat diskurtso dauden bezala, eta guk bata zein bestea uztartuta, gure diskurtsoa lantzeko eta garatzeko eskubide osoa daukagula uste dugu. Izan ere, orokorrak zein unibertsalak





diren eduki jakin batzuk dauzka aldarrikapenak. Hasi berriak gara proiektu honetan eta badakigu datozen urteetarako lan eskerga dakarrela, baina horri eusteko prest gaude.

Gernika-Lumoko memoria, kultura eta giza eskubideen alorretan lan egiten ari diren eragileak batzea erabaki zenuten 2017. urtean, beraz. Orain arte bakarka egindako lana oso garrantzitsua izan da, baina eragile bakoitzak bere kabuz egiten duen lan horrek zapalduko al du interes eta bultzada komuna?

S.I. Ikuspegi anitzek eraturako proiektua da, baina ez dago inor inoren aurretik. Adostutako egitasmoa da eta adostasunak taldeari potentziala eta indarra ematen dizkio.

J.A. Sintonia handiarekin kapazak izan gara bakoitzaren autonomiatik egitasmoak lantzen joateko, baina aldi berean, elkarri laguntza emateko eta jarduera bateratuak antolatzeke.

A.A. Nik uste dut kontrako ariketa dela. Batasun honek talde txiki bakoitza indartu eta aberastu du.

S.I. Gernika-Lumoko Batzordeko kide moduan, eta Jonek eta Aitorrek esandakoa testuinguruan jartzearen, gogoratu behar dugu talde oso txikia izan garela eta ez dugula baliabide ez materialik ez ia giza-baliabiderik ere izan atera nahi izan ditugun gauza eta kontu asko burutzeko. Seinalatuak diren datak iritsi ahala kanpoko laguntza txiki batzuk izan ditugu aldiro, bultzadaxoak, eta ekintza interesgarri eta ahaltsuak sortzeko gai izan gara horrela.

‘Guernica Gernikara’ egitasmoak Gernika-Lumoko Batzordeari aurrera egiten lagundu dio, talde moduan sendotzen. Gure ibilbideari ikuspegi eta begirada berri bat eman dio, lan ildo berri bat.

C.S. Gernika Garretan eta Arrano Kultur Elkartearen ordezkari gisa, azpimarratu nahiko nuke batasunetik egindako lanaren garrantzia. Eragile batzuek denbora asko

” Orain dela urte dezente sortu zen ekimenaren ideia berrartu nahi izan dugu, berregokitu, berreztabaidatu eta berpiztu

daramate, beste batzuk, aldiz, ez horrenbeste. Gu, gure txikitasunetik, ahal dugun eta iruditu zaigun ekarpenik handiena egiten ari gara azken urteetan. Orain, proiektu bateratu baten parte izanik, balio erantsi bat ematen dio elkarlanak guk apaltasunetik egindakoari.

M.A. Besteek egindako lan eta esfortzutik asko ikasten da, oso argi daukagu Lobak taldearen barruan ere ideia hori.

C.S. Esan bezala, guk puntualki kolaboratu izan dugu beste eragileekin, adibidez, Gernika-Lumoko Batzordearekin. Batez ere, bonbardaketaren urteurrenetan. Baina egitasmo berri honek indarra eta bultzada ematen dizkigu memoriaren gaian sakonago lan egiteko.

S.I. Gure mikrokosmos txiki honetan omnium kultural txiki bat gara. Eta posible da norberaren izen-abizenak albo batera utzita herri mailan, baita Euskal Herri mailan ere, lan egitea. Ez dakit zein ibilbide izango duen, baina badago aukera omnium kultural horri begira lan egiteko.

A.I. Hemen gauden guztion helburua litzateke gure aldarrikapenean eta helarazi

nahi dugun mezuan talde gisa funtzionatzea. Ekitaldiak antolatzeko orduan, beharbada, izenik ez agertzea, baizik eta herriaren izenean jardutea kausa komun baten alde. Baina ez bakarrik Gernika-Lumoren izenean, Gernika-Lumotik haratago doan helburu batez ari gara berbetan.

J.A. Hala da, bai. Eta horretarako, hau da, orain arte egindako lana eta etorkizunean egingo dugunaren testigantzak interesatu ororen eskura jartzeko, webgune bat ere sortu dugu. Ahal den neurrian, web orria nazioartean hariak eta sareak lotzeko tresna izatea nahi dugu. Oso argi daukagu euskaratik abiatu nahi dugula, baina kontziente gara webguneen nazioarteko hizkuntza ingelesa dela.

A.A. Web orrialdea gure lan tresna nagusia da, izan ere, Jonek aurreratu bezala, atal txiki bat daukagu "Artxiboa" izenekoa, eta bertan, dokumentazio historikoa biltzen ari gara. Ekarpen oso garrantzitsua izan daitekeela uste dut, batez ere belaunaldi berriei begira.

Memoria historikoaren garrantzia azpimarratzeko eta gaur egungo egoera soziopolitikoan sakontzeko eta salatzen



ere balio du 'Guernica Gernikara' plataformak. Baina, zein da egitasmoaren helburua zehazki, eta zeintzuk dira horiek aurrera eramateko ikusten dituzuen mugak edo eragozpenak?

J.A. Memoria lantzen duten Euskal Herriko eta baita kanpoko eragileekin ere harremanak sortu eta sendotu nahi ditugu. Gernikako bonbardaketaren memoriatik hasi eta pixkanaka-pixkanaka beste maila batzuetara zabaldu: Espainiako Gerra Zibilaren eta Bigarren Mundu Gerraren memoriak aldarrikatu, eta gaur egungo errefuxiatuen gaiarekin lotu. Izan ere, ezin daiteke ahaztu gu ere errefuxiatuak izan ginela. Adibidez, Astran Erresuma Batuko Basque Children of '37 Association-ekin lankidetzan egindako erakusketa oso interesgarri bat dago. Erakunde honek, ordea, badu guk ez dugun abantaila bat: mundu anglosaxoitik abiatzen direla. Gu, ordea, hainbeste maite dugun Euskal Herriatik gatoz, gure zuhaitzaren gerizpetik (nolabait esatearren), munduko bazter txiki batetik. Gure asmoa, hala ere, Erresuma Batuko Basque Children of '37 Association

„ Hemen gauden guztion helburua litzateke gure aldarrikape-nean eta helarazi nahi dugun mezuan talde gisa funtzionatzea. Ekitaldiak antolatzeko orduan, beharbada, izenik ez agertzea, baizik eta herriaren izenean jardutea kausa komun baten alde

„ Gizartean zabaldua dago memoria iraganarekin lotzen dela, hau da, memoria termino zaharra dela, eta guk ikuspuntu ezegoki hori apurto nahi dugu; memoriak etorkizunari begiratzen diola aldarrikatzen dugu, gaztea dela, modernoa, berria

bezalako proiektuekin bat egitea da, eta mundu osora zabaltzea Gernika-Lumok eta Picassoren Guernica koadroak memoriaren lekuko gisa duten garrantzia. Jada badauka.

S.I. Jonek esandakoarekin guztiz ados nago. Baina azpimarratu beharreko muga bat aipatu nahiko nuke: muga psikologikoa. Gizartean zabaldua dago memoria iraganarekin lotzen dela, hau da, memoria termino zaharra dela, eta guk ikuspuntu ezegoki hori apurto nahi dugu; memoriak etorkizunari begiratzen diola aldarrikatzen dugu, gaztea dela, modernoa, berria.

A.A. Lobak elkartearen eratu zenean beraien lema zen: ez ahaztu gertatutakoa. Tamalez, iraganeko akatsak errepikatzen ari dira. Baina zer da iragana? Aurrera begira egin behar den irakaspena. Memoria oso aktuala da, izan ere, gurean gertatu zena errepikatzen ari da. Momentu honetan Guernica asko daude. Bat Sirian, beste bat Iraken, baita Yemenen ere... Memoria beharrezkoa da etorkizun hobe bat izateko.



S.I. Hori da, horregatik da garrantzitsua memoria etorkizuna dela aldarrikatzea. Kontzeptuak berak dakarren kargarekin apurtu egin behar dugu, biharko gizartearen oinarria da. Hau ulertzen ez dugun bitartean oso zaila izango da eraginkortasunez aurrera egitea.

J.A. Gauza bat Zientzia Historiografikoa da, beste gauza bat bertatik ateratzen den errelatoa. Eta azkenik, memoria daukagu. Memoriak izaera etiko bat dauka: zer gogoratu nahi dugu, eta zertarako? Memoriari buruz ari garenean gure historiak eta gure iraganeko irakaspenez ari gara, munduarekin partekatuzko jarrera da. Memoria, Picassoren Guernica, etorkizun berri bat eraikitzeko tresna da. Bestalde, errelatoa eztabaidagarria da, eraikuntza politiko bat da, dibulgazioarekin lotuta dagoena.

Urtero programa zabal bat eskaini izan duzue bakarka, eta aurten elkarlanean ekitaldi asko eta ezberdinak antolatu

dituzue. Zein da aldarrikatzen duzun etorkizuneko memoria horri kulturaren, artearen eta sormenaren bitartez, heltzearen garrantzia?

I.A. Kultura ezinbesteko tresna da. Memoria gaur eguneko ia zate eta etorkizunari begira egotea nahi badugu gizartearengana, baina batez ere, gazteengana iritsi behar dugu. Transmisiorako tresna da kultura.

Nahitaz hitzaldiak, lehen Jonek aipatu dituen erako erakusketak, kontzertuak, proiektzioak... antolatu behar dira, zenbat eta gehiago hobeki! Ekimen eta jarduera inklusiboak oso garrantzitsuak dira, baina ez bakarrik gazteak memoria historikoarekin harremanetan jartzeko, baita kolektibo ezberdinei ahotsa emateko ere. Azken hiruzpalau urteetan errefuxiatuen auzia oso presente izan dugu. Astran beraie buruzko erakusketa dago, eta apirilaren 26an beraiek jarri zuten martxan Gernika-Lumon entzungai egon zen sirena zaharra.

C.S. Egun berean, Gernika Garretan kale antzerkia ere antolatzen dugu. Lan eta esfortzu itzelaren bidez sortu zen ekimena, eta oinarrian izan genuen ideia ahaztutako memoria hori errekuperatzea izan zen. Apirilaren 26 hartan gertatu zen bombardaketa berreraikitzea eta, ondorioz, herri-ekimen dinamiko honen bitartez, memoria guztiz gaurkotua dela azpimarratzea. Iragina gaurkotzea, historia hartu, eguneratu eta etorkizunera begira galderak planteatzea.

” Gu, gure txikitasunetik, ahal dugun eta iruditu zaigun ekarpenik handiena egiten ari gara azken urteetan. Orain, proiektu bateratu baten parte izanik, balio erantsi bat ematen dio elkarlanak guk apaltasunetik egindakoari

ADELA GARTEIZ

Artekale, 14
Tel.: 94 625 08 31/Faxa: 94 465 36 38
emaila: adelagarateiz@hotmail.com

argibide

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ARGIBIDE, s.coop.
LANPAREN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Inigo López de Haro, 11 (Txoroburu)
Tel./Fax: 94 625 39 16
GERNIKA (BILBAO)

MARGOAK FRANCISCO BILBAO

Koloreelako makina
Lakatuak eta bornizatuak
pistolaz

Salmenta eta erakusketa: Alhondiga, 1
Tel.: 94 625 04 90
Tailerra: Golkoibarra - Txaporta pol. 9.pab.-B
Tel.: 94 625 51 83 / 629 690 808

URIBE

Funeraria Funeraria

Juan Kalgata, 8 Gehiarrera, 13B

Telefonoak:
94 625 00 85
608 970 163
656 786 488



● “GUERNICA GERNIKARA(II)

“Guernica Gernikara” proiektuaren ordezkariekin mahai-ingurua (II): Guernica gehiagorik ez, ez hemen, ez inon!

Kulturari eta ekitaldi kulturaleri buruz hitz egiten bukatu dugu mahai-inguruaren lehen blokea. Bigarren honetan, gaiari berriz ekingo diote bestelako ikuspegi bati eutsiz. Horrez gain, hurrengo belaunaldiei testigantza pasatzearen garrantzia ere azpimarratuko dute ‘Guernica Gernikara’ plataformako solaskideek. Azkenik, Picassoren koadroak non egon beharko lukeen, eta zergatik, hausnartuko dute Lobak, SARE, IPES, Gernika-Lumoko Batzordeko, Gernika Garretan eta Arrano Kultur Elkarteko ordezkariak.

Kultura eta memoriaren artean zein toki dauka identitateak?

S.I. Xabier Irujo Nevadako Unibertsitateko (AEB) euskal ikasketen zentroko zuzendariak eta historialariak Gernika-Lumon emandako hitzaldi batean esandako hitzak oso adierazgarriak dira. Genozidioak nola ulertu behar diren azaldu zuen, eta adibide gisa, AEBetako indigenen kasua jarri zuen. Zera zioen: “nik zu pertsona moduan bizirik utziko zaitut, baina zure indiotasuna hil egingo dut”. Hau da, fisikoki bizirik utzi zituztela kolonoek, baina kulturalki ez. Gu hemen indioak izan gara, eta oraindik ere izaten jarraitzen dugu. Urte askoan hemen egon gara bizirik, baina gure kultura ezabatu nahi izan dute batzuek... Identitatearekin zerikusia dauka.

I.M. Galdera litzateke, behar bada, identitate zer den edo zeren arabera erakitzen den. Historia garaikideak Gernika-Lumo munduarekin kontaktuan jarri du, eta gaurko Gernika-Lumok erabaki dezake konexio horrekin zer egin: iraganeko zerbait moduan klasifikatu edota etorkizunera begirako



lanketa gisa baliatu. Errefuxiatuak gaurko Guernica dira, baina baita biharkoak ere. Eta gure esku egon daiteke horiek kultura inklusibo baten baitan barneratuta egon edo ez. Gure herriak daukan ondarea da Picassoren koadroaren transzendentziak haratago dimentsio handiagoan lan egiteko aukera daukala, beste edozein herritan baino gehiago. Hautu bat izan daiteke daukagun aukera hori mundu umil baten alde baliatzea. Nire pertzepzioa da askotan iraganak zama handi bat sortarazi dezakeela, baina adibidez begira Angela Lopez eta Maitane Azurmendi, Berlinen egon berri dira bi hirien arteko harremana artearen bitartez loratzen.

A.A. Gernika-Lumon sinbolo bat izatera kondenatuta gaude. Guk kondena hori askatasun bihurtu nahi dugu. Etorkizun hobea batera begira lan egiteko daukagun aukera hori aprobetxatu behar dugu. Durango Gernika-Lumo baino lehenago bonbardatu zuten, baina ez dauka Gernika-Lumoren kondena sinboliko hori. Beste herri batean, beharbada, gertakari historiko soil bat izango litzateke, besterik ez. Neurri handi batean koadroak ematen dio kondena hori.

M.A. Bai, eta askotan galdetzen digute ea koadroan bizi garen... Zaldiaren eta zezenaren artean edo...

I.M. Zama izan daiteke batzuentzat, baina gure plataformaren muina ere hor dago: Gernika-Lumo memoriaren leku baina baita lekuko izatearena ere... gertatutakoaren testigantza hurrengo belaunaldiei ere pasatzea. Gernika-Lumok potentzialtasun handia dauka zentzu honetan, baina zoritxarrez, beste herri batzuek ez. Adibidez, Munitibarrek, Otxandio, Durangok ez dute kapazitate hori. Sufrimendu berbera izan zuten herri hauetan. Baina kontua da ea zeren eta noren zerbitzura jartzen dugun potentzialtasun hori. Iruditzen zait herriak misio edo erronka bat daukala. Kudeaketa zintzoa egitea dagokigu bertatik abiatuta. Bonbardaketa bizi izan ez zuten pertsonen testigantza zuzenak jasotzen azkenak dira Lobak taldeko ordezkariak. Eta askatasunez

norberak ematen dio bere ñabardura propioa. Hala, gernikar berriek Gernika-Lumori ikuspegi berri bat ematen die askatasunez. Zorionez, orain Gernika-Lumok Lobak dauka. Galdera mamitsua egin dezakegu. Zer utziko diegu gernikar belaunaldi berriei? Gertatutakoa guk, zuzeneko testigantzak jaso ditugun azkenok, kontatzen ez badiegu kanpoko norbaitek kontatuko die...

I.A. Hori da, eta dagoeneko hasi gara ikastetxeetara joaten, bertako ikasleengana zuzentzen, eta bonbardaketa bizi izan zuten pertsonen birbilobei gertatutakoa ezagutarazten. Zorionez, konturatu ginen zentro askotan gaia asko lantzen dutela, eta Euskal Herriko ikastetxeetatik gonbidapenak ere jaso ditugu bertaratzeko eta gure esperientziak kontatzeko.

” I.A. “Dagoeneko hasi gara ikastetxeetara joaten, bertako ikasleengana zuzentzen eta bonbardaketa bizi izan zuten pertsonen birbilobei gertatutakoa ezagutarazten”

Guernica margolanaren balio gaurkotua azpimarratu duzue zenbaitetan. Koadroa Gernika-Lumora ekartzeko ekimena bultzatu, eta maila guztietan, horren inguruko eztabaida publikoa berpiztea da egitasmoaren bigarren helburu nagusia...

A.A. Gure asmoa Picassoren koadroak non egon behar duen, eztabaida hori, berriz ere



NEKAZALTURISMOA - JATETXEA

Guzurtegi

945 39 94 38

La Plazuela auzoa, 6
www.guzurtegi.com

01479 Maroño - Aiara (ARABA)
e-maila: guzurtegi@guzurtegi.com

” M.A. “Hau ez da amaituko koadroa bertan daukagunean. Gure aldarrikapenak aurrera egin behar du ostean ere”

” I.M. “Gure aldarrikapenek zentzua daukate oraindik zoritxarrez Guernica gehiago gertatzen ari direlako. Gazan biztanleria zibila bonbardatzen duten bakoitzean Guernica gehiago birproduzitzen ari da mundua”

gizartean berpiztea da. Orain dela 20 edo 30 urte kalean nagusitzen hasi zen aldarrikapena berreskuratzea. Ez dut uste Gernika-Lumon edota Euskal Herrian inor egon litekeen Guernica margolana Gernika-Lumon egotearen kontra. Baina, gaiari, nahi horri, bidea zabaltzeko behar diogu aurrera egin nahi baldin badugu. Momentu honetan, lehen pauso oso garrantzitsu bat ematen ari gara, gehiengo sozialaren barnean dagoen gogo eta eztabaida hori berpiztea, iratzartzea.

J.A. Hor dago ‘Guernica Gernikara’ plataformaren erronka. Guernica margolana Gernika-Lumora, baina zergatik? Zertarako nahi dugu koadroa bertan? Gure herria memoriaren leku eta kabia delako. Asmoa ez da eztabaidaren monopolioa izatea, kontziente gara ezinezkoa dela. Baina uste dugu arrazoizkoak direla gure argumentuak, hau da, Guernica guretzako ez da museo batean gordeta egon beharko lukeen maisulan bat soilik, eta beharbada eztabaidagarria ere izan daiteke. Madrilgo Reina Sofia museoko zuzendaria gurekin eztabaidatzera gonbidatuko nuke...

M.A. Baina hau ez da amaituko koadroa bertan daukagunean. Gure aldarrikapenak aurrera egin behar du ostean ere.

J.A. Hori da. Guretzako aldarrikapena haratago doa. Bat egiten dugu Picassok zioenarekin, hau da, Guernicaren, eta orokorrean, artearen betekizuna ez dela museo batean soilik gordeta egotearena. Guernica sinbolo bat da eta bertatik ateratzen diren ondorio politiko eta etikoak zentzua ematen diote. Eta horiek ez dira betetzen Madrilgo Reina Sofian, baizik eta gure herrian.

A.I. Kokalekuez ari garela, anekdota bat kontatu nahi dizuet. Koadroa gurera etortzea nahi dugu, baina Espainiatik doktrina ezagun bat dago zabaldua, margolana oso baldintza txarretan dagoela esaten duena... Urte luzez alde batetik bestera tokialdatzen egon ostean hondatuta dagoela, eta beraz, teknikoki Madrildik hona ekartzea ezinezkoa dela dioena. Baina, El País egunkarian irakurri nuen behin El Prado museoko zuzendariari egindako elkarrizketa bat. Bertan, Miguel Falomir Faus zuzendariak zera esaten zuen, gaur egun Guernica Reina Sofian dagoela arte modernoaren kokalekua hori delako, baina 100 urte igaro ostean koadro klasiko bat izatera pasatuko omen

” A.I. “Koadroa orain dagoen tokian isilduta dago, eta kontua izango litzateke hona ekartzean isildutako oihu horren amplifikazio bat berpiztea”

dela eta beraz, Pradora lekualdatu beharko dutela, Reina Sofian zaharkituta geratuko baita...

El Prado museoko Miguel Falomir Faus zuzendariaren hitzak mingarriak direla sumatzen da zuen hitzetan. Aipatzen duzuen koadroaren balio sinboliko eta etikoa guztiz ezabatuko luke bere ikuspegiak. Aldiz, zuen aldarrikapenek margolanaren gaurkotatasunaren defentsa sutua egiten dute. Zergatik da oraindik ere, edota jarraituko du, Guernicak modernoia izaten?

A.I. Istorioa denok dakigu, baina oso garrantzitsua da gogoratzea, bat datorrelako margolanaren izaerarekin.




**AMURRIO
BITXITEGIA**
San Roke, 3
© 94 625 09 28
GERNIKA-LUMO

TXAPORTA
zerbitzu gunea

autogarriketa
tailer mekanikoa
denda
txaporta pol. z/g
48300 GERNIKA
☎ 94 625 14 21
94 625 62 61

UXARTE
• SAGARDAOGINTZA •
ZABALIK OSTIRALETAN
ETA ASTEBURUETAN
"ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ"
(GUTRIENEZ 15 LAGUNEKO TALDEENTZAKO)
Montorra, 6 - ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com


**GIZONEZKOEN
ILEAPAINDEGIA "SRKN"**
Industri kalea, 3-behea
Tel.: 94 625 28 09



Gobernu errepublikanoak Pablo Picassori Parisko erakusketarako koadro bat margotzea enkargatu zion. Artistak ez zekien zer egin, baina Condor Legioak Gernika bonbardatu zuenean jarraian ekin zion Guernica margotzeari (gerrari buruzko lan bat egitea pentsatua zuen, baina gure herriko sarraskia erabakigarria izan zen). Askorentzat, Guernica momentu hartako egoeraren erretratu bat da... baina gu ez gaude ados. Margolanaren indarra ateporala da. Momentu honetan Guernica asko daude munduan. Gernikan 1937ko apirilaren 26an faxistek egin zuten sarraskia errepikatzen ari da Kurdistanen, Sirian, Palestinan... mila lekutan. Koadroa, beraz, ez da iraganeko argazki soil bat, sortzaile batek margotutako lan artistiko huts bat. Artea mundua ulertzeko tresna bat da, jendea erakartzeko, eta horiei pentsarazteko. Guernica koadroaren balio unibertsal hori berreskuratu nahi dugu.

J.A. Garrantzitsuena da, gertakizun historikoaren azterketa eginda (momentu historiko tragiko batetik abiatuta) etorkizunerako zein irakaskuntza atera nahi dugun, eta zertarako. 2019. urtean bizi gara, baina oraindik ere mundua gaixotuta dago, Lehen eta Bigarren Mundu Gerra bitarteko gizartearen bezala, konparazio bat egitearren. Gernika-

Lumok, herri gisa, eta Guernicak, artelan gisa, zerbaitetarako balio badute gizarte gaixo hau sendatzeko izan beharko luke.

A.A. Guernica Gernika-Lumora ekartzea ez da bakarrik kokaleku aldaketa bat, baizik eta injustizi baten onarpen bat. Ez da aldaketa fisiko bat, orain dela 82 urte egin zen eraso faxista injustu baten onarpena ekarriko lukeena baizik. Onarpena aipatu duzue. Onarpena eta barkamena gauza bera al dira?

I.M. Ez da barkamen kontua, justizia ariketa bat baizik. Justiziaren barruan ez dago zertan barkamen bat egon behar. Justiziak bermatzen du etorkizunean iraganean gertatutakoa ez errepikatzea, aldiz, justiziarik ez egoteak sarraskiak, bonbardaketak... errepikatzeak arriskua dakar. Historiak erakutsi diguna da gertaerak behin eta berriz errepikatzen direla. Gure aldarrikapenek zentzua daukate oraindik zoritxarrez Guernica gehiago gertatzen ari direlako. Gazan biztanleria zibila bonbardatzen duten bakoitzean Guernica gehiago birproduzitzen ari da mundua, eta justizia ezak horri kobertura ematen dio.

A.A. Zuzenbide internazionalen konfliktuak konpontzeko edo bideratzeko hiru kontzeptu aztertu behar dira: egia, justizia eta erreparazioa. Kasu honetan, Picassoren

koadroa gure herrian egoteak suposatuko luke neurri handi batean (ez guztiz) horiek betetzea, eta Ibonek zein Aitorrek esan bezala, Gazan, Sirian... gertatzen ari dena ez errepikatzea.

S.I. Justiziak ez dauka preziorik, guk ez dugu margolana ekarri nahi gero horrekin irabazi ekonomikoak lortzeko, turistak erakartze... ez.

A.I. Koadroa orain dagoen tokian isilduta dago, eta kontua izango litzateke hona ekartzean isildutako oihu horren amplifikazio bat berpiztea. Berez, tokia berezia delako eta toki honetan izango lukeelako potentzialitate handiena mundu mailan protesta horren adierazpen gisa. Gernika-Lumon ez beste inon ez luke berमतuko bere benetako balioa.

I.M. Mezua argia eta zehatza da, eta eragile guztiok egiten dugu bat aldarrikapenarekin: Guernica gehiagorik ez, ez hemen, ez inon! Hala, Gernika-Lumok eta elkarlanean martxan jarri dugun plataforma honek mezu hau indartzeko bozgorailua izan behar du. Potentzialitate handia dauka etorkizunera begira batasun honek, hemendik abiatuta lan bateratu bat egin daiteke modu irekian, aniztasunean oinarrituta, eta elementu komunak aintzat hartuta.

Juan Kaitzada, 19 - 94 685 22 79

OSPRA TABERNE

Funeraria - Tanatorio

IZARO

Hileta zerbitzuak

GERNIKA: 94 625 83 23
BERMEO: 94 618 63 78
MUGIK.: 609 466 723

ARIATZA

ARIATZA LORZATEGIA

- Kanpo eta barruko landareak
- Lorategiko akzesorioak
- Lore sortak, zentroak eta koroak
- Barnealdean, bulegoen, atarien, ... dekorazio begetala

Ariatza auzoa, z/g
Zornotza-Gernika errep.
☎ 94 625 67 33

SAN JUAN

Loteria administrazioa 2.zbkia

San Juan, 23 • Tel 94 625 48 99 • 48300 GERNIKA